



SAN TELMO ZURE KASA

HAURRENTZAKO ETA FAMILIENTZAKO JARDUERA

ZULOAGA 150

Egin ezazu Ignacio Zuloagaren obra baten bertsioa

NOR DA?

Ignacio Zuloaga euskal margolari garrantzitsuenetako bat da. Eibarren (Gipuzkoa) jaio zen 1870ean, duela 150 urte, eta Madrilén hil zen 1945ean. Dirudienez, bere aitak arkitektoa izatea nahi zuen, baina Ignaciok pinturan aritzea erabaki zuen. Paisaia, erretratu eta tipo herrikoi asko modu errealistan margotu zituen, batez ere kolore ilunak erabiliz. Museoan ikusgai dauden Zuloagaren margolanak ezagutu eta gozatzea gonbidatzen zaitugu. Omenaldi txiki bat bere jaiotzaren urteurrenean.

ZULOAGA BEZALA MARGOTZERA

Ignacio Zuloagak gazte-gaztetatik egin zuen marrazkigintza. Baina berak bazekien margolari ona izateko beste artista handi batzuen lanak ezagutu eta aztertu behar zituela. Museo asko bisitatu zituen estilo eta garai askotako koadroak ikusteko. Gaur egun gu gara bere pinturei erreparatuko diegunak.

- Hurbildu Museoko Arte Ederren saileko Euskal Artearen aretora, eta kokatu Zuloagaren lanak. Berehala ikusiko dituzu, batzuk tamaina handikoak dira.
- Ignaciori asko gustatzen zitzaizkion zezenak eta paisaiak, askotan margotu zituen gaiak dira. Jendea erretratatzeko ere gustatzen zitzaion. Dena zen bezalakoa margotzen zuen, errerealismoa deitzen zaio horri.
- Koloreei dagokienez, ilunak erabiltzen zituen, batez ere beltza.
- Oloz asko margotzen zuen arren, ikatzaz marrazten ere jarraitu zuen, Hamarretako lanean bezala. Obra honen bertsio propioa egitea proposatzen dizugu. Zuloagak kolorerik erabili gabe marraztu zuen, baina zuk koloreztatu dezakezu, aldatu... Bertsio librea egitea da helburua. Sinatu eta nahi duzun titulua eman diezaiokezu. Errazagoa bazaizu, erantsitako txantiloia erabil dezakezu.



Egilea:

Izenburua: